

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuel Aldaraborda Etxabide

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretako Miguel Zabaleta kalean jaio zen Manuel. Hiru senidetan bigarrena zen. Aita Irungoa zuen eta ama berriz Etxalarkoa. Aitak Errenteriako alanbre-fabrikan egiten zuen lan. 1939an soldaduen kamioi batek jo zuen Lezorako bidean eta bertan hil zen, Manuelek hamar urte besterik ez zituela. Ama lanean hasi zen orduan Esmalterian. Manuel Biteri eskola publikoan ibili zen hamalau urte bete arte Don Pedro Indaberea apaizarekin. Hamalau urterekin lanean hasi eta lantegi asko ezagutu izan ditu: Yeregi-Billanueban moldeak egiten, Mapip izenekoa makinak egiten, Niessenen mekaniko eta Sabino Olaskoagaren lantegian mekaniko. Gero, 1963an, beste batzuekin batera Tajo Kooperatiba sortu zuen; bertan aritu zen erretiroa hartu arte. Mekaniko-doitzaile izan da. Betitik izan da oso kirolzalea: gaztetan futbolean aritzen zen eta gerora beti izan du mendizaletasun handia. Herriko Urdaburu Mendizale Elkarteko kide izan da. Bixen Trojaola Errenteriarrarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Beti bizi izan dira Agustinak auzoan.

Zintak

ERR-032

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-05-12
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aita armadaren kamioi batek jota hil zen

- **Erref:** ERR-032/003
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aitak alanbre-fabrikan egiten zuen lan. 1939an armadaren kamioi batek buruan jo zuen eta bertan hil zen.

2. Alpargata-fabrikan lanean

- **Erref:** ERR-032/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:09:19. **Bukatu:** 00:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Alpargata-fabrika batean egin zuen lan lehenengo Manuelek. Fabrika hura non zegoen azaltzen du. Han egindako alpargatak zapata-dendatan saltzen ziren.

3. Umetako jolasak

- **Erref:** ERR-032/009
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:17:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Umetan zer jolasetan aritzen ziren azaltzen du: "txorrotaina", futbolean, kanikatan, txoritan...

4. Umeak helduen gerrako portaera imitatzen

- **Erref:** ERR-032/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:18. **Bukatu:** 00:18:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Umetan beraiek ez zuten izaten ika-mikarik beste kaleetako umeekin; baina beste batzuen artean izaten ziren borrokak, gerrako portaerak imitatzen.

5. Ama esmalte-fabrikan lanean

- **Erref:** ERR-032/011
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:18:43. **Bukatu:** 00:19:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Manuelen amak etxetik kanpo egin behar izan zuen lan aita hil zenean: esmalte-fabrikan hasi zen lanean orduan. Anai-arrebek ere laguntzen zioten amari etxeko garbitasuna egiten.

6. Don Pedro Indaberearen zigorrak

- **Erref:** ERR-032/013
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:21:44. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Herriko eskola publikora joan zen Manuel; han don Pedro Indaberea apaiza izan zuen maisu: hark jo egiten zituen ikasleak. Umeak jotzeko makilak baserritarrei eskatzen zizkien. Haren zigor batzuk aipatzen ditu. Dena erdaraz ikasten zuten.

7. Errekan arrainak harrapatzen

- **Erref:** ERR-032/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:28:32. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Errekan arrainak harrapatzen ibiltzen ziren eta horretarako zer tresna erabiltzen zuten eta non erosten zuten aipatzen du.

8. Eskolako hamaiketakoa

- **Erref:** ERR-032/019
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lehen ez zegoen diru askorik. Eskolara hamaiketakoa eramaten zuten, eta bestela, 15 xentimorekin erosten zuten Pakiren dendan.

9. Futboleko jokatzeko zaletasuna

- **Erref:** ERR-032/025
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Manuel Luistarren kongregazioaren futbol-taldean hasi zen jokatzeko, gerora Irunen, eta azkenik Pasaian. Talde haietan jokatzeko zuenean, entrenamendu kaxkarrak izaten zituzten: nolakoak izaten ziren azaltzen du. Partiduak beste herri batean izaten zirenean, taldeak jartzen zuen hara joateko autobusa. Garai hartako botek eta baloiek ez zeukaten gaur egungoek bezalako kalitatea.

10. Taldeen arteko ika-mikak eta arbitroen erantzukizuna

- **Erref:** ERR-032/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:40:00. **Bukatu:** 00:41:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Manuelek futboleko jokatzeko garaian ere izaten ziren borrokak. Behin arbitro batek Touring futbol-taldeko 4-5 jokalarik kanporatu zituen; partidua bukatutakoan, guardia zibilarekin atera behar izan zuen, jendea atzetik segika baitzuen harrika. Ika-mika handiak zeuden taldeen artean.

11. Futboleko jokalariek lehen

- **Erref:** ERR-032/027
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:41:57. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Futboleko jokatzeko zuenean, aurrelaria zen Manuel; jokalarien artean zer funtzio zeuden azaltzen du.

12. "Gutxiago bidaiatu eta egunkari gehiago irakurri"

- **Erref:** ERR-032/034
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:56:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Francoren aldeko hitzaldiak entzun behar izan zituzten gaztetan. Haietako batean gertatutako anekdota kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com